

## **ARNAS INFEKZIO AKUTUAREN (AIA) ZAINITZA**

### **Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)**

**2025-2026 denboraldia**  
**(2025eko irailaren 29tik 2025ko irailaren 27ra)**

#### **46. astea (2025eko azaroaren 10etik 16ra)**


***Gripe-birusaren zirkulazioak goranzko mantentzen du. Bronkiolitis tasak ere gora egin du azken asteetan, atalase-epidemikora gerturatuz, eta COVID-19ren tasa balio baxuetan mantentzen da.***

- Lehen mailako arretako (LMA) sarean AIA tasa 383,8 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (367,1/100.000 aurreko astean).
- Lehen mailako arretan, gripe-sindromearen tasak goranzko joera mantentzen du. Bronkiolitisaren tasak gora egin du aste honetan eta COVID-19arena baxu mantentzen da.
- Mikrobiologiako laborategira bidalitako 64 lagin jagoleen % 70,3 baieztatu da, 32 gripe-birus eta ABS bat detektatu direlarik, baina ez SARS-CoV-2rik. 7 errinobirus ere detektatu dira.
- Osakidetzako ospitale-sarean, AIA larriaren tasa 14,9 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (12,7/100.000 aurreko astean).
- LMAko AIA tasa eta larrialdietako gripe sindromearena intentsitate maila baxuan mantentzen dira, azken honek goranzko joera argia duelarik. LMAko bronkiolitisaren (<2 urte) tasa oinarritzko mailan mantentzen da, baina atalase-epidemikora gerturatuz.
- EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sisteman, aste honetan, 457 gripe-birus, 45 ABS eta 28 SARS-CoV-2 erregistratu dira.

### Zaintza sindromikoa


Zaintza honen bidez, LMA sareko AIA kasuen tasa estimatzen da Historia Kliniko Elektronikokoan jasotako informazioaren bitartez eta GNS-10 kodeak erabiliz. Aste honetan hautemandako AIaren intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 383,8 kasukoa izan da (367,1/100.000 aurreko astean). Lurralde historikoka, tasa 296,0/100.000 izan da Araban, 419,1/100.000 Bizkaian eta 368,3/100.000 Gipuzkoan.

**AIaren intzidentzia-tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.**  
**Lehen mailako arreta-sarea. 2025-2026, EAE**




Adin-taldearen arabera, AIaren tasa altuena urte batetik beherakoen adin-taldean eman da 3289,0 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 1-4 eta 5-14 urtekoen adin-taldeak kokatzen direlarik 100.000 biztanleko 2087,6 eta 658,0 kasurekin, hurrenez hurren.

**AIaren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera**  
**Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE**



AlAekin lotutako Prozesu Arin Automugatuaren (PAA, *Hotzeria arrunta* eta AlAren sintomaren bat duen *Sukarra*<sup>1</sup>) zaintzaren helburua erizaintzako langileek artatzen dituzten prozesu horien bilakaera ikustea da. Aste honetan tasa 100.000 biztanleko 174,6 kasukoa izan da (167,6/100.000 aurreko astean).



Erakunde Sanitario Integratuaren (ESI) araberako intzidentziari dagokionez, tasek gora egin dute aurreko astearekin alderatuta ESI gehienetan.


**AlAren intzidentzia-tasak eta tasen arrazoia ESlaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE**

| ESI                               | Tasa<br>46. astea | Tasa<br>45. astea | Tasen arrazoia<br>(% 95 KT) |
|-----------------------------------|-------------------|-------------------|-----------------------------|
| Arabako ESI                       | 320,5             | 270,6             | 1,18 (1,08-1,30)            |
| Arabar Errioxako ESI              | 560,4             | 407,6             | 1,38 (0,95-1,99)            |
| Barakaldo-Sestaoko ESI            | 365,2             | 388,0             | 0,94 (0,83-1,07)            |
| Barrualde-Galdakaoko ESI          | 400,9             | 442,2             | 0,91 (0,84-0,98)            |
| OSI Bilbo-Basurtuko ESI           | 463,7             | 474,3             | 0,98 (0,91-1,05)            |
| Ezkerral.-Enkart.-Gurutzetako ESI | 438,9             | 427,2             | 1,03 (0,93-1,14)            |
| Uribeko ESI                       | 360,3             | 324,9             | 1,11 (1,00-1,23)            |
| Bidasoako ESI                     | 334,0             | 292,9             | 1,14 (0,95-1,36)            |
| Debararrenako ESI                 | 377,4             | 338,4             | 1,12 (0,94-1,33)            |
| Debagoienako ESI                  | 249,6             | 266,7             | 0,94 (0,76-1,16)            |
| Donostialdeako ESI                | 366,0             | 308,3             | 1,19 (1,10-1,29)            |
| Goierri-Urola Garaiaiko ESI       | 404,0             | 345,0             | 1,17 (1,01-1,36)            |
| Tolosaldeako ESI                  | 375,2             | 395,3             | 0,95 (0,80-1,13)            |

<sup>1</sup> Informazio gehiagorako kontsultatu [AlAaren jagoletzaren metodologia](#)

LMAn, gripe-sindromearen tasak 37,4 kasu 100.000 biztanleko balioraino egin du gora (33,5/100.000 aurreko astean). Bronkiolitisaren tasak (2 urtetik beherakoetan) gora egin du ere eta 317,5 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (245,4/100.000 aurreko astean), eta COVID-19arena 100.000 biztanleko 1,8 kasutan mantentzen da (1,9/100.000 aurreko astean).


**Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.**  
**Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE**



## Lagin jagoleen diagnostiko mikrobiologikoa

Zaintza honetan, astero, AIAren sintomak dituzten kupo jagoleetako pazienteen artean gutxienez bost kasu hautatzen dira sistematikoki, eta diagnostiko mikrobiologikorako lagin bat hartzen zaie. Aste honetan, AIArako erreferentziako mikrobiologiako laborategian 64 lagin jagole aztertu dira eta horietatik % 70,3 baieztatu dira. 32 gripe-birus (26 A(H3) eta 6 A(H1)) eta ABS bat atzeman dira, baina ez SARS-CoV-2rik. 7 errinobirus ere detektatu dira.

**AIA intzidentzia-tasa LMAN eta sare jagolean detektatutako arnas birus kopurua,**  
**aste epidemiologikoaren arabera. 2025-2026, EAE**



Gripe-birusaren positibotasuna altu mantentzen da % 50,0an (% 44,2 aurreko astean) eta ABSren positibotasuna % 1,6an kokatu da (% 0,0 aurreko astean). SARS-CoV-2aren positibotasuna % 0,0koa izan da (% 1,9 aurreko astean). Errinobirusaren positibotasuna % 10,9koa izan da (% 19,2 aurreko astean).

**Positibotasunaren ehunekoa mikrobiologiako laborategira bidalitako lagin jagoleetan arnas birus motaren arabera. Sare jagolea. 2025-2026, EAE**


|                | 46. astea |              | 45. astea |              | 2025-2026 hasieratik |              |
|----------------|-----------|--------------|-----------|--------------|----------------------|--------------|
|                | Detek.    | Positib. (%) | Detek.    | Positib. (%) | Detek.               | Positib. (%) |
| Influenza      | 32        | 50,0         | 23        | 44,2         | 126                  | 31,7         |
| SARS-CoV-2     | 0         | 0,0          | 1         | 1,9          | 9                    | 2,3          |
| ABS            | 1         | 1,6          | 0         | 0,0          | 4                    | 1,0          |
| Metaneumobirus | 0         | 0,0          | 0         | 0,0          | 0                    | 0,0          |
| Parainfluenza  | 2         | 3,1          | 0         | 0,0          | 13                   | 3,3          |
| Adenobirus     | 1         | 1,6          | 0         | 0,0          | 3                    | 0,8          |
| Errinobirus    | 7         | 10,9         | 10        | 19,2         | 114                  | 28,7         |
| Urtaroko CoV   | 2         | 3,1          | 2         | 3,8          | 8                    | 2,0          |
| Enterobirus    | 1         | 1,6          | 1         | 1,9          | 5                    | 1,3          |

**AIA larria (AIAL) Osakidetzako ospitale-sarean**

**Zaintza sindromikoa**


AIAL (arnas infekzio akutu larria) kasuak Osakidetzako ospitale-sarean artatutako AIaren prozesu klinikoak dira, GNS-10 kodeen bitartez astero Historia Kliniko Elektronikotik erartortzen direnak. AIAL tasa 14,9 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (12,7/100.000 aurreko astean), 13,8/100.000 gizonetan eta 15,9/100.000 emakumeetan.

**AIAL tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE**




Adin-taldearen arabera, AIAL tasa altuena urte batetik beherakoen adin-taldean eman da 100.000 biztanleko 94,4 kasurekin, ondoren 64 urtetik gorakoen eta 1-4 urtekoen adin-taldeak kokatzen direlarik 100.000 biztanleko 44,4 eta 23,4 kasurekin, hurrenez hurren.

**AIALren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera.  
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE**



Gripearen diagnostiko-kodeekin (J09-J11) erregistratutako ospitaleratzeen tasa 3,7koa izan da 100.000 biztanleko (2,6/100.000 aurreko astean), ABSren kodeekin (J12.1, J20.5 y J21.0) ospitaleratutakoena tasa 0,2koa 100.000 biztanleko (0,1/100.000 aurreko astean) eta COVID-19aren kodearekin (U07.1) ospitaleratutakoena 0,2 kasukoa 100.000 biztanleko (0,0/100.000 aurreko astean).

**Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.  
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE**




## AIAL laginen diagnostiko mikrobiologikoa

Atal honetan, Osakidetzako ospitale-sarean AIAL kasuei egindako analisi birologikoen emaitzak erakusten dira. SARS-CoV-2aren positibotasuna % 0,2koa izan da (% 0,8 aurreko astean). Gripe-birusaren positibotasunak gora egin du, % 34,8an kokatuz aste honetan (% 30,8 aurreko astean), eta ABSrena % 7,0raino igo da ere (% 3,2 aurreko astean). Errinobirusaren positibotasuna % 8,8raino jaitsi da (% 25,5 aurreko astean).

### Mikrobiologiako laborategietan azterturiko lagin kopurua eta hauen positibotasuna (%) AIAL kasuen laginetan arnas birus motaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE

|            | 46. astea  |             | 45. astea  |             | 2025-2026 hasieratik |             |
|------------|------------|-------------|------------|-------------|----------------------|-------------|
|            | Lagin kop. | Positib.(%) | Lagin kop. | Positib.(%) | Lagin kop.           | Positib.(%) |
| SARS-CoV-2 | 254        | 2,0         | 240        | 0,8         | 1538                 | 4,6         |
| Influenza  | 247        | 34,8        | 201        | 30,8        | 1260                 | 24,4        |
| ABS        | 214        | 7,0         | 186        | 3,2         | 1156                 | 2,6         |

### Mikrobiologiako laborategietan azterturiko AIALen laginen positibotasun portzentaia arnas-birus motaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, CAE




## Atalase epidemikoak eta intentsitate-mailak

Epidemia Mugikorren Metodoa (*Método de Epidemias Móviles*, MEM) ezarri da Euskadin arnas infekzio akutuek (AIA) zaintzeko, atalase epidemikoak eta intentsitate-mailak zenbateteko. Horri esker, modu objektiboan identifika daitezke urtaroko epidemien hasiera eta amaiera, eta haien intentsitatea sailkatu.


Lehen mailako arretako AIAREN zaintzari dagokionean, atalase epidemikoa 2025/40 astean gaingitu zen eta gaur egun tasa intentsitate maila baxuan kokatzen da.

**AIaren epidemiaren intentsitatea serie historikoarekin alderatuta.  
Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE**




Gripe-sindromean, ospitaleetako larrialdietatik ateratako datuek adierazten dute atalase epidemikoa 2025/42 astean gaititu zela, aste honetan intentsitate maila baxuan mantentzen delarik, goranzko joerarekin.

**Gripearen epidemiaren intentsitatea larrialdietan serie historikoarekin alderatuta.  
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, CAE**



Azkenik, lehen mailako arretako 2 urtetik beherako bronkiolitis diagnostikoei dagokionez, tasa atalase epidemikoaren azpitik kokatzen da, baina honetatik nahikoa gertu.

### Bronkiolitisaren (<2 urte) epidemiaren intentsitatea serie historikoarekin alderatuta. Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE




### Arnas birusen detekzioak IMSn

Zaintza honetan, Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko mikrobiologiako zerbitzuek zirkuitu jagoletik kanpo jakinarazitako gripe-birusaren eta ABSaren lagin positiboak biltzen dira. Sistema honetan 457 gripe-birus, 45 ABS eta 28 SARS-CoV-2 detektatu dira azken astean.

Aste honetan detektatutako 457 gripe-birusetatik, 286 A motakoak izan dira, 110 A(H3), 59 A(H1)pdm09 eta 2 B motakoak. 2025/40 astetik 1900 detekzio erregistratu dira, 1892 (% 99,6) A motakoak eta 8 (% 0,4) B motakoak. Azpitipatutako A motako 1089 birusetatik, 601 (% 55,2) A(H3) eta 488 (% 44,8) A(H1)pdm09 izan dira.

### Asteko SARS-CoV-2, influenza eta ABS detekzio kopurua. IMS. 2025-2026, EAE



Metodologiari eta beste aspektu batzuei buruzko informazio gehiago [Osasun Saileko webgunean](#) eta ondorengo esteka hauetan: [SiVIRA](#) (estatukoa), [Flu News](#) (Europa, gripea), [FluNet](#), (Mundua, gripe), [OPS](#) (Amerika, gripea), [CDC](#) (AEB).

**2025eko azaroak 20**

**Zaintza Epidemiologikoa**  
**Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza**